



ESKOLA KONTSEILUA
BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK

Gasteiz, 2018ko urriak 22

Eskola elkarte osoari:

Dagoeneko bi urte igaro dira Eskola Kontseiluko kideak azken aldiz hautatu zirenetik, 2016/2017 ikasturtean. Beraz, egoki da Kontseiluaren **berritze partziala** egitea, 1997ko urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuan (2007ko urtarrilaren 30eko Dekretuaz zati batean aldatua) ezarritako eran.

Postu huts hauek betetzeko hauteskundeak egin behar dira:

- 2018/2019 ikasturteko lehen hiru hilabetean hautatuak izan ziren 4 urteko kargualdia bukatzen duten ordezkariak —edo haien ordezkoez— hutsik utzitako postuak.
- 2016/2017 ikasturtean 4 urterako hautatu ziren eta geroztik edozein arrazoiengatik Eskola Kontseiluko kide hautetsi izateari utzi dioten ordezkariak hutsik utzitako postuak. Berdin dio ea hutsune hori ordezkoren batek bete duen edo ez.

Hauek dira Eskola Kontseiluan orain berriro beharreko kideak:

- * Irakasleen bi ordezkari.
- * Gurasoen bi ordezkari.
- * Administrazioako langileak zerbitzuak bat.

Orain kargua utzi behar duten ordezkariak berriz izenda daitezke, edo hauteskundeetara aurkez daitezke eta guraso, irakasle eta ikasleen ordezkariak berriz hautatuak izan daitezke, hala nahi badute.

Hauteskunde Batzordea eratzea izan da lehen urratsa. Hona hemen batzordeko kideak:

- Erakunde titularraren ordezkaria eta ikastetxeko zuzendaria.
- Guraso bat, irakasle bat, ikasle bat, eta administrazio eta zerbitzuak langileen ordezkari bat.

Eskola Kontseilua hautatu eta eratzeko arauak, bai eta hautesle erroldak ere, eskuragarri dituzu ikastetxeko atezaindegian, datorren hilaren 22tik aurrera. Nabarmentzekoak:

HAUTAGAIK AURKEZTEA (15. artikulua):

Ez dago baldintza berezirik, «Bakoitzari dagokion taldeko hautagai izan daiteke hautesle-erroldan dagoen guztia».

«Hautagai bat legez ezarrita dagoen elkarte, erakunde edo talde zehatz bateko kide gisa aurkeztu bada, hautagaiak aldarrikatzen direnean derrigorrez geratuko da jasota egoera hori.»

Boto txartelak atezaindegian jaso daitezke, eta ikastetxeko zuzendariari bidaliko zaizkio edo atezaindegiko postontzian utziko dira.

GURASOAK EDO TUTOREAK:

- Boto eskubidea dute aita eta ama, edo tutoreak; hau da, bi boto familiako.
- Botoa emateko unean, NANarekin edo dokumentu baliokidearekin identifikatuko dira.
- Boto txartel ofizialetan, gehienez BI izen bozkatu ahaliko dira.

IRAKASLEAK:

- Gehienez BI izen bozkatu ahaliko dituzte.

«Balio gabekoak izango dira [...] ezarritakoak baino hautagai-izen gehiago dauzkaten botoak [...]» (17.3 artikulua)

POSTA BIDEZKO BOTOA:

«Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore guztien parte-hartze ahalik eta handiena lortze aldera, hautesleek postaz ere eman ahal izango dute botoa, zeina Hauteskunde Batzordearen esku izango baita hauteskundeak egiteko aurreikusi den egunaren bezperan.» (5.1 artikulua)

«Botoa posta-sistemaren bidez eman nahi duten hautesleek Hauteskunde Batzordeko buruari helaraziko dizkiote jarraian zehazten diren dokumentuak, gutunez, mezulariaren bitartez, edo hautesleak berak edo beste pertsona batek ikastetxean bertan entregatuz:

- a) Eskabidea, hautesleak sinatuta, honako hau eskatzeko: posta bidezko botoa emateko eskubidea erabiltzea. Eskabidean bere datu pertsonalak eman beharko ditu, eta boto-eskubidea hezkuntza-komunitateko zein sektoretan ematen duen zehaztu.
- b) NANaren edo dokumentu baliokide baten fotokopia.
- c) Gutun-azal itxia, boto-txartel betea barruan duela.» (5.2 artikulua)

«Adierazitako dokumentu horiek Hauteskunde Batzordeko buruari helaraziko zaizkio, gutun-azal baten barruan. Gutun-azal horretan honako hau jarri behar da: Sagrado Corazón – Corazonistas Ikastetxeko Eskola Kontseilurako hauteskundeak. Posta bidezko botoa.» (5.3 artikulua)

ESKOLA KONTSEILUAK honako kide hauek izango ditu: ikastetxeko zuzendaria, titularraren hiru ordezkari, zinegotzi bat edo Udalaren ordezkari bat, lau guraso, lau irakasle, bi ikasle, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Kargua uztekotan diren kideei Eskola Kontseiluan eman duten arduraldia eta lankidetzak eskertu eta gero, eskola elkarte honetako partaide guztiei gogorarazi nahi diet Eskola Kontseilua, legearen agindua baino areago, ikastetxeko bizitzan duten parte hartzearen adierazpide dela. Parte hartzea sustatuz, ikastetxe biziagoa eta dinamikoagoa lortuko dugu, eta ikastetxeak ilusioz eta indartsu ekin ahaliko die haur eta gazteen hezkuntzak dakarzkigun demei. Horregatik, denei parte hartzeko eskatzen dizuet. Zuen esanetara nauzue.



Izenpetua: Eduardo Salazar
ZUZENDARIA

HAUTESKUNDE EGUTEGIA

1.- Hauteskunde Batzordearen bilera, batzordea eratzeko eta erroldak nahiz egutegia onartzeko	Urriak 19 16:45
2.- Hauteskunde arauak argitaratzea	Urriak 22
3.- Hauteskunde erroldak argitaratzea	Urriak 22
4.- Hautagaitzak aurkezteko epea	Urriaren 29tik azaroaren 6era 17:30 arte
5.- Hauteskunde Batzordearen bilera, hautagaitzak eta boto txartelen ereduak aldarrikatzeko	Azaroak 7 10:50
6.- Hauteskunde mahaietako kideak izendatzeko zozketa	Azaroak 7
7.- Onartutako hautagaitzak eta boto txartelen ereduak argitaratzea	Azaroak 8
8.- Gurasoen ordezkarien hauteskundeak (hitzaldi aretoan)	Azaroak 14 10:00
9.- Irakasleen ordezkarien hauteskundeak (hitzaldi aretoan)	Azaroak 14 14:30 – 15:30
10.- Administrazioako langileak zerbitzuak ordezkarien hauteskundeak	Azaroak 14 11:30
11.- Hauteskunde Batzordearen bilera, hautetsiak eta ordezekoak aldarrikatzeko	Azaroak 15 16:45
12.- Ikastetxeko Eskola Kontseilua eratzea	Azaroak 22 19:00